

"Ararat mendiaren sumina"
Yasar Kemal
euskaratzailea: Fernando Rey
Alberdania / Elkar, 2003

Kemalismoak uniformizatu eta pobretutako Anatoliaren aberastasun izugarria agertzen da Yasar Kemalen obran. Fernando Reyk itzulitako "Ararat mendiaren sumina" idazle honen lanaren paradigmatzat jo dezakegu. Herri Kurduaren epopeia txiki honetan mila irudi, istorio eta sentipen kontatzen dira, mundu zabalean edozeinek ulertu eta gozatzeko modukoak. Gaur egungo Turkian injustiziaren aurka altxatzen diren milioka ahotsetatik Yasar Kemalena da, behar bada, ezagunena. Baten baino gehiagotan inguruka ibili zaion Nobel Sariak suposa dezakeen aitoren unibertsalarekin zein hori barik, bere literatura gorengoa da jadanik.

Kurdistanentzat aspaldiko partez bonben artean bide lauso bat —beste traizio bat?— irekitzen ari den honetan asko hitz egiten ari gara peshmergetaz eta gerrilarietaz. Estaturik gabeko nazio handienaren historia eta ametsak zeintzuk diren ikasteko egokia da nobela hau, baina baita guda eta maitasuna maisuki biltzen dituen irakurtaldi ahaztezin bat izateko aukera paregabea ere.

Herri-kulturatik eta berdintasunaren kontzientzia sakonetik edaten duen literatura landua eta sakona da Yasar Kemalena. Maitemindu egiten du. Arrano baten hegalditik hasi eta bikote batek elkarri zor dion maitasuneraino, gauzak kontatzeko indar berezi bat du idazle honek. Irakurri egin behar da, ordea, kontatzea hain baita zaila. Ekialdeko kulturaren aurpegi bi (India edo Pertsia epika eta ahozko literaturako erromantikotasuna) bat eginda gozatzeko modua izango du irakurleak.

Gizakia zurrumbilo bat dela ondorioztatuko du irakurleak Mahmut Khan, bere alaba Gülbahar eta honen maitale Ahmeten arteko triangeluak osatzen duen istorioan aurrera egin ahala. Hiru hauek eta beste hainbat pertsonaiek bizitzaren aurrean egiten dituzten hautuak erabili gura ditu Yasar Kemalek ohorea, bizitza, zuzentasuna edo fideltasunari buruz hausnartzeko. Baina beste hari batek ere zeharkatzen du "Ararat mendiaren sumina". Bigarren ari horrek izaera kolektiboa du. Gizataldeek —eta beraz, gizateriak— gorputz bakar eta borondate batu bezala izan dezaketen indarra da. Ahmed eta Gülbaharrek Mahmut Khan boteretsuaren kontra egitean pizten duten kontraesan moralaren aurrean herriak hartzen duen jarrera da, finean, liburuko ikaspen ederrenetako bat hainbeste edertasun biltzen den liburu honetan.

Deia, 2003-04-22